

HAUR eta NERABEAK

UDA 2022



**Udalekuak • KIROL eskaintza
Laboratorium museoa Udan
Liburutegia igerrilekuan**

Udaleku irekiak

Ekainaren 27tik uztailaren 15era
(3 aste aukeratuz gero)
edo

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
(4 aste aukeratuz gero)

10:00-13:00

Udaleku irekiak aukera paregabea dira Bergarako ume guztiak elkartu eta euskaraz, aisialdi hezitzaileaz gozatu dezaten.

► **PARTE-HARTZAILEAK:**

- 2010-2017 urte bitartean jaiotako haurrak.
- Haurrak Bergaran errolatuta egon beharko du.

► **ANTOLAKETA:**

Udaleku irekietarako herriko 3 ikastetxeak erabiliko dira, adinka honela antolatuko dira:

- **HH4 eta HH5 (2016 eta 2017an jaiotakoak):**
Mariaren Lagundia ikastolan.
- **LH1 eta LH2 (2014 eta 2015ean jaiotakoak):**
San Martin Agirre ikastetxean.
- **LH3, LH4, LH5 eta LH6 (2010, 2011, 2012 eta 2013an jaiotako haurrak):**
Aranzadi ikastolan.
- **Angiozarren eta Osintxun** ere udalekuak eskainiko dira (2010-2019 urte bitartean jaiotakoei zuzenduta) baldin eta gutxieneko taldea sortzen bada.
- **HH2 eta HH3 maila** egin duten ikasleentzat ez da udaleku irekirik antolatuko baina herriko ikastetxe guztiak antolatuko dute hauei zuzendutako zaintza/aisialdi zerbitzua. **Informatu zure ikastetxean.**
- Udaleku irekietan hurrek herriko ikastetxe guztiak ezagutzeko aukera eskaini nahi da, bakoitzaren ikastetxeko eremua gainditu



eta herri mailako udalekuen eskaintza osatu da. Honek seme-alaba bi edo gehiago dituzten familientzako haurrak ikastetxe ezberdinetara eramateko zailtasunak ekar ditzake. Desplazamendu hauek egiteko zailtasunak dituzten familia horiei, haurrak Santa Marinako arkupeetan 9:45ean uzteko aukera eskaini nahi zaie. Bertan udalekuetako hezitzaile bat egongo da haurrei ibilbide hau egiten laguntzeko. Horretarako udalekuen izen ematea egiterakoan horrela adierazi beharko da galdetegian.

► IZEN EMATEA:

Izena emateko epea: **apirilaren 27tik maiatzaren 15era** (biak barne).

Beharrezko dokumentazioa:

- Izen emate orria beteta.
- Bankuko ordainagiria edo tarifa sozialaren eskaera orria beteta izatea.

Izen-ematea egiteko bideak:

• INTERNETEZ

www.bergara.eus web gunean UDALEKUAK atalean.

• UDALETXEAN - B@Z

Astelehenetik ostiralera: 08:00-15:00

Ostegunetan: 07:30-15:00 eta 16:00-19:00

• LIBURUTEGIAN

Astelehenetik ostiralera 8:30-20:30

Larunbatetan: 9:00-13:00

► **COVID OHARRA:**

- Baliteke unean uneko Covid baldintzek antolaketa aldatzera behartzea (adin tarte batzuk kanpoan utzi, guneak aldatu, etab...).
- Hurrek udalekuetarako momentu horretan indarrean dauden osasun neurriak bete beharko dituzte.

► **PREZIOA:**

Aukeratutako aste kopuruaren eta izena eman duen seme-alaba kopuruaren arabera:

UDALEKU IREKIAK	3 ASTEKO IRAUPENA	4 ASTEKO IRAUPENA	TARIFA SOZIALA 3 ASTE	TARIFA SOZIALA 4 ASTE
Lehenengo eta bigarren seme-alaba	75€ bakoitza	100€ bakoitza	35€	45€
Hirugarren umea eta ondorengoak	Dohainik	Dohainik	Dohainik	Dohainik

► **ORDAINKETA:**

Udalekuetan izena emateko ezinbestekoa izango da bakoitzak dagokion kuota ordainduta izatea edo tarifa sozialaren eskaera eginda izatea.



TARIFA SOZIALA UDALEKU IREKIETAN:

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

- Elkarbizitza unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.
- Elkarbizitza unitateak diru kopuru hau baino gutxiago jaso behar du urtean.

Bi pertsonako unitate familiarra	20.105,04 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	23.776,22 €
Lau pertsona edo gehigoko unitate familiarra	27.447,27 €

► TARIFA SOZIALA ESKATZEKO PROZEDURA:

Udalekuetan izena emateko epe barruan (apirilaren 27tik maiatzaren 13ra) tarifa soziala eskatu beharko da udaletxean bertan, B@Z zerbitzuan.

Astelehenetik ostiralera: 08:00-15:00

Ostegunetan: 07:30-15:00 eta 16:00-19:00

► AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena).
2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitortpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).
3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzeko Lanbidek emandako agiria.
4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria.

KIROL KANPUSA

**Ekainaren 27tik uztailaren 15era
(3 aste aukeratuz gero)**

edo

**Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
(3 aste + 1 aste aukeratuz gero)**

10:00-13:00

Aisialdia aprobetxatuz, bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzea dugu helburu. Opor garaian daukaten denbora librean, jarduera fisikoa eta kirol ezberdinez gozatzeko aukera izango dute partehartzaileek.

► **PARTE-HARTZAILEAK:**

- 2009-2013 urte bitartean jaiotako partehartzaileak.
- Lehentasuna izango dute Bergaran erroldatuek.

► **ANTOLAKETA:**

Udako oporretan, kanpoko kirol ekintzetan oinarritutako kanpusa. Hasiera batean, Agorrosin gunean zentratuko da nagusiki, baina eguraldiaren arabera, beste udal kirol guneetan ere egingo ditugu ekintzak.

Bi aukera egongo dira: 3 astetako ikastaroa egin ahalko da edo 4 astetako. Laugarren aste horretan taldeen eraketa berria egingo da.

► **EDUKIAK:**

Tenisa, beisbola, hockeya, badmintona, boleibola, natur jarduerak, ur jolasak... taldearen kirol eskaerekin malguak izango gara.

► **IZEN-EMATEA: Apirilaren 25etik maiatzaren 8ra**

• **INTERNETEZ:**

www.bergara.eus edo www.bergarakirola.eus webgunean, UDALEKUAK atalean.

• **AGORROSINGO EKINTZA GUNEAN**

Astelehenetik ostiralera 6:30-20:00

Larunbat eta igandeetan: 9:00-13:30-16:00-19:00



► **IZENA EMANDAKOEN ZERRENDAK:**

BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK: **Maiatzak 10**

ZOKKETA EGUNA (ikasleen gehiengo kopurua gaindituz gero): **Maiatzak 13**

BEHIN BETIKO ZERRENDAK: **Maiatzak 13**

Aurrera aterako ditugun taldeen berri izatea izena eman duenaren ardura izango da. Informazio hori Agorrosingo iragarki taulan eta www.bergarakirola.eus webgunean eskura egongo denez, ez da inongo jakinarazpenik egingo.

► **PREZIOA:**

3 aste aukeratuta: 83€

3 aste + 1 aste aukeratuta: 105€

► **ORDAINKETA:**

Behin plazak esleitutakoan egin beharko da ordainketa eta orduan jasoko dute familiek jardueren beharrezko informazioa.

► **COVID OHARRA:**

Covid-19ari aurre egiteko, une horretan indarrean dauden arauak kontuan hartuko dira.

Udako igeriketa kanpaina

1go txanda: ekainak 27-uztailak 8
2. txanda: uztailak 11-22

2010-2018 urte bitartean jaiotakoak

► **IKASTARO ORDUTEGIAK:**

- Zapaburu, dordoka eta amuarrain: 10:00-10:45
10:45-11:30
16:00-16:45
16:45-17:30
- Bale eta marrazo mailak: 17:30-18:15

► **IKASTARO EGUNAK:** Egunero, astelehenetik ostiralera.

► **PREZIOA:** Abonatuak: 36,96€ / Ez abonatuak: 75,04€

► **OHARRA:** Ikasleak 2022an ez badu igeriketa ikastarorik egin edo ez bada ikastetxearekin etorri eta Zapaburu maila baino altuagoa badu, izena eman aurretik mailaketa frogara egin beharko du. Horretarako, txanda hartu beharko da Agorrosingo harreran.

Gazteentzako Uda KIROL Kanpaina

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra

2004-2010 urte bitartean jaiotakoak

BERRIA ESKALADA	BERRIA ZUMBA	MULTI-TRAINING (Areto txirrinda, Kros fita, TRX...)	ARETO TXIRRINDUA	PADELA
10:00-11:30 astelehena asteazkena	11:30-12:30 asteartea osteguna	10:30-11:30 astelehena asteazkena ostirala	11:30-12:30 astelehena asteazkena ostirala	9:30-10:30/ 10:30-11:30/ 11:30-12:30 asteartea osteguna
PREZIOAK (Abonatu/Ez abonatu)				
60,55€/78,72€	24,20€/49,45€	36,30€/74,18€	39,56€/80,67€	40,37€/52,48€

► **IZEN-EMATEA: Apirilaren 25etik maiatzaren 8ra**

• **INTERNETEZ**

www.bergarakirola.eus webgunean, UDALEKUAK atalean.

• **AGORROSINGO EKINTZA GUNEAN**

Astelehenetik ostiralera 6:30-20:00

Larunbat eta igandeetan: 9:00-13:30-16:00-19:00

► **IZEN-EMATEA ZERRENDAK:**

BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK: [Maiatzaren 12an](#)

ZOKKETA/BEHIN BETIKO ZERRENDAK: [Maiatzaren 17an](#)

► **ORDAINKETA:**

Izen emate orrian, kontu korrontea eman duenari bertatik kobratuko zaio ikastaroa hasi baino astebete lehenago.

Beste ordainketa erak hautatu dutenek ikastaroa hasi baino **astebete lehenago** egin beharko dute:

1. Ordainketa banketxean egin eta ordainagiria Agorrosinera garaiz ekarri.
 - Kutxabank: ES59 2095 5070 76 1060284535
 - Laboral Kutxa: ES06 3035 0009 13 0090016873
2. Txartelarekin, Agorrosineko harreran.
3. Eskudiruz, Agorrosineko harreran.

Abonatu tasa aplikatuko zaie kobraketa egunean abonatuta daudenei.

► **ARAUDIA:**

- Gehienezko kopurua gainditzen bada, izen-ematea zozketa bidez egingo da. Zozketan lehentasuna, abonatuak direnak izango dute.
- Bajarik ez da onartuko izena ematea itxi eta gero (maiatzak 8). Horregatik plaza lortzeak ordainketa nahitaez egitea dakar.
- Jarduera bakoitza aurrera ateratzeko, GUTXIENeko taldekide kopuru bat beharko da.
- Aurrera aterako ditugun taldeen berri izatea izena eman duenaren ardura izango da. Informazio hori Agorrosingo iragarki taulan eta www.bergarakirola.eus webgunean eskura egongo denez, ez da bestelako jakinarazpenik egingo.
- Covid-19ari aurre egiteko, une horretan indarrean dauden arauak kontuan hartuko dira.

LABORATORIUM MUSEOA UDAN

Izen-emateak eta informazio gehiago ekainaren 1etik aurrera.

Plaza mugatuak egongo dira.

Jarduerak dohainik izango dira, Kanpus Teknologikoa izan ezik.

Laboratorium museoa: www.laboratorium.eus • Tel.: 943 76 90 03

1 LEVANTEKO LABAR ARTEA

Ekainak 28 - 10:00etan eta 17:00etan

Jarduera honek Levanteko Historiaurreko Arteari buruzko gune didaktiko ibiltaria dakar, munduan bakarrak diren Holozenoaren hasierako manifestazio horiek ezagutarazteko eta baloratzeko.

Levanteko artea duten estazioak aztertze joera berrietako bat arkeologia esperimenterako hurbilketa da. Horren bidez, parte-hartzaileek, ebidentzietatik abiatuta, pinturak egiteko erabili ziren teknikak, tresnak eta materialak birsortu ditzakete. Hala, harreman oso iradokitzaileak sortzen dira gizakiaren, irudikatutako fauna eta haren ingurunearen artean. Pigmentuak nahastuko ditugu eta harpe artifizial batean pintatuko dugu.

IRAUPENA: 1:45

NORENTZAT: Familiak (gomendioa: 8 urtetik gorako haurrak).

NON: Laboratorium.

2 MIKROMETEORITOEEN TAILERRA

Ekainak 29 - 10:00etan

Zergatik desagertu ziren dinosauroak? Zer dira ozar-izarrak? Zein da meteorito, meteoro eta meteoroiden arteko aldea? Non aurkitu ditzakegu mikrometeoritoak? Tailer honetan horretaz guztiaz ikasiko duzu, mikrometeoritoak bilatuko ditugu eta mikroskopio batetik identifikatuko ditugu.

IRAUPENA: 90 min.

NORENTZAT: 8-12 urte.

NON: Laboratorium.



3 ZIENTZIAREN SUKALDEA. KIMIKAKO ESPERIMENTUAK

Uztailak 4 eta 6 - 10:30ean

Gure inguruan aldaketa kimikoak etengabe gertatzen dira baina haietaz jabetzeko ondo behatzen ikasi behar da. Begirada berezi hori izateko, kimikako hainbat esperimenterekin gure ingurunean zein gure barnean gertatzen diren aldaketak ikasiko ditugu, zientzia egunerokotasunera hurbilduz. Kimika dibertigarria dela ikusiko duzu!

IRAUPENA: 1:30

NORENTZAT: 8-12 urte.

NON: Laboratorium.



4 ILUSTRAZIO BOTANIKOA

Uztailak 5 - 10:00etan

Ezagutzen ez denak ez duela axola dirudi. Beraz, ezagutza behar da polinizazioak eta polinizatzaileek ingurumenean duten garrantziaz jabetzeko eta horiek babesteko jarrera aktiboa garatzeko. Marrazketa tresna ezin hobea da horretarako. Marraztea, halaber, lagungarria da gauzak hobeto behatzeko, behatutakoa gogoratzeko eta ezagutzak komunikatzeko. Kasu honetan, haurrek inguruko polinizatzaileak ezagutzeko erabiliko da marrazketa.

Marraztu ezagutzeko, ezagutu zaintzeko!

IRAUPENA: 3 ordu

NORENTZAT: 6-12 urte.

NON: Laboratorium.

5 GURE bizilagunik onenak

Uztailak 7 - 21:00etan

Haurrei eta familiei zuzendutako jarduera da, saguzarrak hobeto ezagutzeko. Bertan, lau panelez osatutako erakusketa baten bidez, saguzarren inguruko ezagutzak zabaltzeko azalpenak eskainiko dira (ezaugarriak, bizi-zikloa, espezieak, gizartearentzako onurak, jasaten dituzten mehatxuak...). Gainera, saguzarren babes-kutxa eta detekzio gailuak bertatik bertara aztertzeko aukera izango da.

Iluntzean, parte hartzaileek saguzarren deiak entzun ahal izango dituzte ultrasoinuen detektagailuak erabiliz. Horri esker, bertan hegan dabiltzan saguzarren espezieak identifikatu ahal izango dituzte.

Ekintzen gidaritza Naturtzaindia Elkarteko kideen eskutik egingo da, "Mendiak Bizirik" elkartearen laguntzarekin.

IRAUPENA: 1:30


NORENTZAT: Familiak

NON: Laboratoriumen eta herrian zehar.

6 UR azpiko indusketa arkeologikoa

Uztailak 8 - 9:00etan

Uluburu itsasontzian ur azpiko indusketa arkeologikoa. Duela ehunka urte hondoratu zen itsasontzi bat arkeologikoki induskatzeko aukera izango duzu. Ur azpian dauden objektu eta bitxiak aurkitu eta berreskuratuko dituzu, ondoren aztertu eta sailkatzeko. Itsasontziaren historia ezagutzeaz gain primeran pasako duzu.



IRAUPENA: 2:30

NORENTZAT: Haurrak, 8-12 urte

NON: Agorrosingo igerilekuan (haurrak prest egon beharko dira ordurako igerilekuan. Ezinbestekoa da igeri egiten jakitea, eta bainujantzia, uretako betaurrekoak eta uretako txanoa eramatea).

7 KANPUS TEKNOLOGIKOA:

3D INPRIMAKETA ETA MIKRO:BIT BIDEZKO ELEKTRONIKA

Ekaineko azken astea edo uztaileko lehena
(*astebeteko tailerra)

9:00-14:00

*Izen ematea
zabalik!!*

Tailer honetan 3D diseinuaren lehen urratsak emango dituzte eta eredu digitalak plastikozko pieza bihurtzeko beharrezko prozesuak landuko dituzte.

Ideiatik objektura, 3D inprimagailu batek nola funtzionatzen duen ikusiko dute: tenperatura egokiaren garrantzia, ohea eta lehen geruzaren itsaspena, estrusorea, plastikozko harizpien bultzada, etab.



▶ PARTE-HARTZAILEAK:

- 12 urtetik gorako gaztetxoak

▶ **NON:** Laboratorium museoa

▶ IZENA EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:

- Laboratorium
- Internetez: www.laboratorium.eus webgunean, Udako Programa 2022.
- Posta elektroniko bidez: laboratorium@bergara.eus

▶ ORDAINKETA:

Transferentzia bidez egingo da kontu hauetako batean:

- Laboral Kutxa. 3035 0009 16 0090900017
- Kutxabank: 2095 5070 71 1062071534

▶ KUOTA:

Kuota, izena eman duen seme-alaba kopuruaren arabera izango da.

1. seme/alaba: 117€ / 2. seme/alaba: 90€ / 3. seme/alaba: 45€

Ordainketa egiterakoan zehaztu haurraren izen-abizenak.

(*): Izen ematearen arabera zehaztuko dira datak.

Liburutegia IGERILEKUAN

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra

Astelehenetik ostiralera, goizez 11:30-12:30 eta arratsaldeko 15:30-18:30 tartean liburutegi zerbitzua eskainiko da Agorrosingo igerilekuan.

Liburuak maileguan jaso, etxeoak entregatu, udan ere irakurtzeko aukera paregabea! Etorri, irakurri eta gozatu!!

Igerilekuan irakurketaz blai!!

LIBURUTEGIA IGERILEKUAN

